

Xabier Kintanak, euskaltzain oso eta Euskaltzaindiaren idazkariak, ondokoa

ZIURTATZEN DU:

Eusko Jaurlaritzaren eskariz *Gaubea* herri izenari buruz heldu zen eskara luzatu zitzaiola Onomastika Batzordeari eta honek aurreko irizpena berretsi zuela, hots, gaztelaniaz *Valdegovía* izen ofiziala duen herriaren euskal izena *Gaubea* dela.

Aipatutako batzorde akademikoak erabaki hau Euskaltzaindiaren hilero-ko bilkuran aurkeztu duela, berraztertzen ari den Arabako Herri Izendegiaren lanen barruan eta Akademiak aho batez berretsi duela erabakia eta horrela ageriko da laster argitara emango den arauan.

Izen horretan argi ageri denez, *-au-* diptongoa, euskarazko *gauza*, *laus*, *Laurendi* edo *Laudio* moduko beste hitzetan bezala, ongi mantentzen da, erromantzez, eskuarki *-o-* bihurtu arren (Cfr. *cosa*, *losa*, *Lorenzo*, *Llodio*), bai eta *-ea* bukaera ere, bokal elkartzeko hori gaztelaniaz askotan *-ia* bilakatzen bada ere, adibidez *mía* < lat. *mea*, *había* < *habea* < lat. *habebat*, *haya* < *haia* < lat. *fa(g)ea*, edo *real* eta *canturrear* bezalako hitzen ebakera arruntean, maiz *rial* eta *canturriar* gisa esanak. Hortaz, garbi dago *Valdegovía* izena -azken buruan *Val(le) de Govía* dena- jatorrizko GAUBEA euskal hitzetik sortua dela, dokumentu zaharretan ongi ageri denez.

Era berean adierazi behar da, Juan Carlos Erregeak otsailaren 26an sinatutako 573/1976 Errege Dekretuan eta Gernikako Estatutuaren seigarren artikularen laugarren atalean zehazten denez, euskara alorreko erakunde aholku emailea Euskaltzaindia izanik, berari dagokiola Euskal Autonomia Erkidego-ko euskal izenei buruzko irizpenak ematea.

Aurreko guztia ikusita, Akademia honek ondoko erabakia hartu du:

Gaztelaniaz eta era ofizialean *Valdegovía* izenaz ezagutzen den Udalaren euskal izena **GAUBEA** dela.

Eta hala adieraziz izenpetzen du Bilbon bi mila eta seiko urriaren hiruan.

Xabier Kintana Urriaga,
Erakundeko idazkaria.